

13. NAO - 2016ko urtarrilaren 21a

14. ALDIZKARIA - 2024ko urtarrilaren 18a (6.Art-en, 8Art-en aldaketa)

31. ALDIZKARIA - 2025eko otsailaren 14a (tarifaren aldaketa)

21. ORDENANTZA FISKALA, BARAÑAINGO UDALAREN KULTUR ARETO ETA GUNEA ERABILTZeko PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

Oinarria

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. ataleko 2. azpiatalean xedatuari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean. Barañaingo Udalaren kultur areto eta gunek erabiltzea da ordenantza honen xedea.

Zergapeko egintza

2. artikulua. Pertsona fisikoek edo juridikoek, bai eta Udalaren baimena duten erakunde edo entitateek, Udalarenak diren eta Barañaingo Udalaren Kultura Batzordeak bere esku dituen aretoak erabiltzea da zergapeko egintza.

Subjektu pasiboa

3. artikulua. Prezio publikoaren subjektu pasiboak dira aipatu lokalak erabiltzeko Udalaren baimena duten pertsona fisiko edo juridikoak.

Prezio publikoaren sorrarazpena eta haren ordainketa

4. artikulua. Prezio publikoaren sorrarazpena baimena ematen den unean berean gertatzen da eta ordainketa erabilera aurretik eginen da, eta betiere, 24 ordu lehenagotik.

5. artikulua. Barañaingo Udalaren edozein aretotarako, egunen erreserbak ez du baliorik izanen ez bada erreserbatutako errentamenduaren zenbatekoaren %25 ordaindu. Ordainketa hori behin betiko likidazioaren kontura eginen da.

Egindako erreserbak deuseztatzeko eskaerak bakar-bakarrik onartuko dira arrazoiak modu sinesgarrian frogatzen badira; idatzita eginen da eskaria eta, betiere, ekitaldiaren data baino 10 egun lehenagotik, gutienez.

6. artikulua. Auditoriumak berariazko arauak izanen ditu erabiltzaileak erreserbari, baliogabetzei eta bestelako zehaztapenei dagokienez bete behar dituen baldintzei dagokienez, bai eta kostuaren salbuespenei dagokienez ere; beraz, ordenantza honen Tarifan Eranskinaren AUDITORIUMA 5. apartatura jo behar da.

Erabilera

6. artikulua. Baimena ondoko erabilera arau hauei jarraituz emanen da:

1. Barañaingo Udalaren kultur guneak herriaren jabariko eta zerbitzurako udal ondasunak dira, batez ere kultur jardueretan erabiltzekoak, musika, antzerki, eszena, gorputz adierazpen eta plastika arloetan, eta tarteka, inguruabarren bat dela medio, aipatuz bertzelako jardueratan erabiltzen ahalko dira.

2. Instalazio horren funtzionamenduaren arauketa Barañaingo Udalaren egitekoa da, Kultura Arloaren bitartez.

3. Barañaingo Udalak, Kultura Arloaren bitartez, hartuko du ardura jarduerak ibilarazi, antolatu eta koordinatzen, bai eta instalazioak zaindu eta hobetzen ere.

4. Barañaingo Udalaren kultur guneak erabiltzeko araubide ekonomikoa, Udalak dohainik erabiltzeko baimena ematen dituen kasuak salbu, indarra duten tarifei egokituko zaie eta haiek dagokien ordenantza fiskalean beharko dute agertu. Halaber, antolatzaileak erantzukizun zibileko poliza kontratatu beharko du, egin beharreko ekitaldiaren ondoriozko edozein ustekaberi aurre egin ahal izateko.

5. Barañaingo Udalak kontratuak edo hitzarmenak egiten ahalko ditu partikular edo entitateekin instalazioen erabilera arautzeko, denboraldi luze edo jarraian erabili behar direnean (hiru edo sei hilabetez, denboraldi batez, urte osoan, etab.).

6. Erabiltzaileen kontura izanen dira:

I.-Edozein tasa, kontribuzio edo zerga ordaintzea.

II.-Egile eskubideak ordaintzea, horrelakorik izanez gero.

III.-Administrazioaren permiso eta baimenak.

IV.-Jarduera gauzatzeko behar diren elementuak muntatu eta kentzea, antolamendua Udalarena ez denean, eta betiere, Udaleko langileek edozein unetan ematen dituzten oharrei kasu egin beharko diete.

7. Instalazioen erabilera publikorako orduak Udalak ezarriko ditu Kultura Arloko Eskuordetzaren bitartez, prest dituen udal langileak eta eskaerak zenbat diren begiraturaz.

8. Entitate edo partikularrek instalazioak erabiltzeko baimenak beti egonen dira Udalak antolatu edo babesten dituen jardueren erabileraren menpe.

9. Oro har, instalazioak erabiltzen dituzten entitate edo partikularrek ondoko baldintzok bete beharko dituzte:

I.-Entitate antolatzaile guztiek beren gain hartuko dituzte eskatzen ahal zaizkien erantzukizun zibil, penal, administratibo zein laneko zergei buruzkoak, edo edozein tankeratakoak, eta beren eskutan soilik izanen dira beren erantzukizunak sorrarazten dituen kalte eta galeren ordainak, Udala erabat salbu geldituko delarik.

II.-Entitate antolatzailea behartua dago agintaritzari eta erakunde eskudunei beharrezko diren baimen guztiak eskatzera, egin nahi duen ekitaldirako.

III.- (152. ALDIZKARIA - 2020ko uztailaren 13) Instalazioak erabiltzeko eskaerak hamabost egun lehenagotik bederen aurkeztu beharko dira, Udalaren Herritarrarendako Harrera Bulegoan (HHB). Eskabidean aditzera eman behar dira eskatutako aretoan eginen den jardueraren izaera eta eduki zehatzak, eta kartelaren zirriborroa erantsi beharko da, baldin publizitatea badauka. Eskatzaileak betiere errespetatuko du lagatako gunearen erabilera, eta ez die inola ere utziko hirugarren batzuei eskatutako gunea erabiltzen, ez osorik, ez zati batean.

Presako kasuak: pertsonak nahiz entitateek Kultur Etxeko lokalak erabili behar izan eta, arrazoi bereziengatik edo halako presa izateagatik, erregelamenduzko tramiteari segitu ez bazaio, beren eskabidea idatziz aurkeztuko dute Kultur Etxean, gutxienez hiru egun lehenago. Eskabide horretan aretoa zertarako nahi duten azalduko dute, baita presaren arrazoia ere.

IV.-Udalak ez du inongo erantzukizunik izanen jendeak egiten dituen gauzengatik, entitate antolatzailearena baita, oso-osorik, erantzukizun hori.

V.-Jarduera buruturik, entitate antolatzailea arduratuko da instalazioak erabiltzeko prest gera daitezen, jarduera hasi zenean zuten egoera berean. Instalazioaren ardura duten langileek ikus-onetsia eman beharko diete.

VI.-Entitate antolatzaileek beren gain hartuko dute instalazioak behar bezala ez erabiltzeagatik egiten diren hondamen edo kalteak konpondu edo ordaintzeko ardura, edozein izanagatik haien arrazoia edo zergatia. Horretarako, Udalak aurkeztuko dio likidazioa, non ez den bera zuzenean egin behar diren konponketen kargu egiten, Udalak hautatzen duen udal teknikariaren zuzendaritzapean, eta horren adostasunarekin.

VII.-Udaleko zerbitzu teknikoek edozein unetan ikuskatzen ahal dituzte jarduera egiteko instalazio osagarrien muntatze eta desmuntatze lanak, eta entitate antolatzaileek horren gainean egiten dizkieten ohar eta jarraibide guztiak onartu eta bete beharko dituzte.

10. Orokorrean, instalazioen barrenean ezin izanen da inongo publizitate eta propagandarik egin, Udalak kasu bakoitzean espresuki baimentzen duena izan ezik.

11. Udalak eskubidea izanen du instalazioetan gaizki portatzen diren pertsona guztiei kargu hartzeko eta are instalazioetatik kanpora bidaltzeko.

12. Erabilera bat baino gehiago edo denboraldi baterako, kontratu edo hitzarmena egiten duten entitateen kide edo partehartzaileek instalazioen erabileran haien portaeragatik istiluak sortu eta instalazioak hondatzen dituztenean, lehenbiziko neurritako, kargu hartu eta gastuen agiria ordaindu beharra ezarriko da.

13. Inguruabarrek eraginda eta aldi baterako, eta Kultura Batzordeak horretarako baimena ematen duen aldi oro, partikularrek Barañaingo Udalaren biltegi-guneak erabiltzen ahalko dituzte, trasteak, tresneria guztia, eszenako materiala, etabar gordetzeko.

14. Ikus-entzunezko baliabideak Udaleko langileek erabiliko dituzte edo entitate antolatzaileak behar bezala kreditaturiko adituek, Udalak bere adostasuna eman ondotik.

15. Kultur Etxean egiten diren jarduera guztietan, edo publizitatea daramatenetan bederen, Udalaren armariaren logotipoa eta Kultur Etxearena ezarri beharko dira, haien entitate laguntzaileak diren aldetik.

16. Udalari dagokio erregelamendu honetan jaso ez diren kasuak erabakitzea, eta zalantzarik sor dezaketen artikuluen azken interpretazioa, Kultura Alorreko eskuordearen bitartez, edo, bertzenaz, ezinbertzean, dagokion udal organoari.

Salbuespenak

7. artikulua. Ezartzen diren kuotak ordaintzetik salbu daude ondoko jarduera hauek:

a) Barañaingo Udalak, Musika Patronatuak eta Lagunak Udal zerbitzuak eta Barañaingo Auditorioak antolatzen dituztenak.

b) Ezkontza zibilak izanez gero, Barañainen erroldaturik dauden pertsonak salbuetsirik daude udal guneak erabiltzeagatiko tasen ordainketatik.

c) Herrian egoitza duten irabazi asmorik gabeko kultur eta gizarte elkarteek, Nafarroako Gobernuako Elkartearen Erregistroan behar bezala erregistraturik badaude eta Udalarekin lankidetzan aritzen badira.

d) Auditoriuma erabiliz gero, bai Udaleko erakunde autonomoei bai c) apartatuan aipatzen diren elkartei, jasanaraziko zaizkie auditoriuma erabiltzeagatik sortzen diren azpikontratazio teknikoen eta beharrezkoak diren gainerakoen zuzeneko kostuak. Ordenantza honen Tarifen Eranskinaren AUDITORIUMA 5. apartatuan adierazten da.

Bestalde, hori izanen da Udaleko arloek beren arloari dagokion aurrekontuko partidan jasanarazi beharreko kostua, auditoriuma erabiltzea erabakitzen dutenean.

Tarifak

8. artikulua.-Lokalak erabiltzeagatik, eranskineko tarifak aplikatuko dira.

5.-Auditoriuma.

AUDITORIUMA ETA AGERTOKIA	ERROLDATUTAKO PERTSONAK / ENPRESAK (euroak)	ERROLDATU GABEKO PERTSONAK / ENPRESAK (euroak)	BARAÑAINGO IRABAZI- ASMORIK GABEKO ELKARTE ERREGISTRATUAK (euroak)	ERAKUNDE AUTONOMOAK (euroak)
Auditoriuma, goizeko edo arratsalde-gaueko ekitaldi edo emanaldi baterako (1-8 ordu)	2.151,00	2.451,00	1.851,00	1.375,00
Auditoriuma, goizeko edo arratsalde-gaueko bi emanalditarako (1-8 ordu)	2.478,00	2.778,00	2.178,00	1.601,00
Auditoriuma, goizeko emanaldi bat eta arratsalde- gaueko emanaldi bat (1-8 ordu)	2.884,00	3.184,00	2.584,00	1.907,00
Ezarritako gehienekoa gainditzen duen ordu bakoitzaren kostua	127,00	148,00	106,00	106,00
Erabiltzaileak bere aldetik deuseztea data	513,00	615,00	380,00	380,00
Grabazioetarako auditoriuma, edozein	1.343,00	1.643,00	1.043,00	843,00

formatutan (1-8 ordu)				
Ezarritako gehienekoa gainditzen duen ordu bakoitzaren kostua	127,00	148,00	106,00	106,00
Auditoriuma, zinema emanaldi baterako (1-4 ordu)	1.440,00	1.590,00	1.290,00	814,00
Auditoriuma, bi zinema emanalditarako (elkarren segidan) (1-8 ordu)	2.197,00	2.497,00	1.897,00	1.321,00
Ezarritako gehienekoa gainditzen duen ordu bakoitzaren kostua	198,00	219,00	177,00	177,00
Auditoriuma, bilera baterako astelehenetik ostegunera, suebaki-oihala jaitsita (1-4 ordu)	598,00	748,00	448,00	247,00
Ezarritako ordutegiaz kanpoko ordu bakoitzeko, honako hau kobratuko da	83,00	104,00	62,00	62,00
Entsegua agertokian, Ekia aretoaren formatuan, astelehenetik ostegunera / suebaki-oihala jaitsita, lan-	582,00	682,00	482,00	281,00

argiarekin, sabai akustikoekin edo Elation KL PAR-FC fokuekin (1-4 ordu)				
Entsegua agertokian, Ekia aretoaren formatuan, astelehenetik igandera / suebaki-oihala jaitsita, lan-argiarekin, sabai akustikoekin edo Elation KL PAR-FC fokuekin (1-8 ordu)	962,00	1162,00	762,00	562,00
Ezarritako gehienekoa gaitzen duen ordu bakoitzaren kostua	91,00	112,00	71,00	71,00
Emanaldi baten edo batzuen aurreko muntaketak eta entseguak, astelehenetik ostegunera (1-4 ordu)	722,00	822,00	622,00	422,00
Emanaldi baten edo batzuen aurreko muntaketak eta entseguak, ostiraletik igandera (1-8 ordu)	1243,00	1443,00	1043,00	843,00
Ezarritako gehienekoa gaitzen duen ordu bakoitzaren kostua	126,00	147,00	106,00	106,00

Bisita gidatua Barañaingo Auditoriumeko agertokira, astelehenetik ostegunera (1 eta 2 ordu artean)	246,00	321,00	171,00	71,00
Ezarritako gehienekoa gainditzen duen ordu bakoitzaren kostua	51,00	66,00	36,00	36,00

ENTSEGU GELAK ETA AMBIGUKO ATARIA, ASTELEHENETIK OSTIRALERA	ERROLDATUTAKO PERTSONAK / ENPRESAK ETA AULAESCENA FORMATUA	ERROLDATU GABEKO PERTSONAK / ENPRESAK	BARAÑAINGO IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTE ERREGISTRATUAK	ERAKUNDE AUTONOMOAK
Entsegu gelak, prezioa / ordua / hilean 1 eta 60 ordu artean erabiliz gero	12,00	32,00	0,00	0,00
Entsegu gelak, prezioa / ordua / hilean 61 eta 120 ordu artean erabiliz gero	11,00	25,00	0,00	0,00
Entsegu gelak, prezioa / ordua / hilean 121 ordutik gora erabiliz gero	10,00	18,00	0,00	0,00
Entsegu gela bat, prezioa / ordua jarduera bakar baterako egun berean	12,00	32,00	0,00	0,00

Bi entsegu gela, prezioa / ordua jarduera bakar baterako egun berean	11,00	25,00	0,00	0,00
Hiru entsegu gela, prezioa / ordua jarduera bakar baterako egun berean	10,00	18,00	0,00	0,00
Ambiguko ataria, prezioa/ordua	26,00	51,00	0,00	0,00

Entsegu gelak, ordu bakoitzeko prezioa aplikatzeko erabilera-orduak zenbatzeko sistemaren arabera:

1. Hileko ordu kopuru jakin bat erabiltzea, taulan adierazten den bezala.

2. Irail, urri, azaro eta abendu bitarteko orduen batura:

-16 eta 240 ordu artean: prezioa orduko: 12,00 edo 32,00 euro, dagokionaren arabera.

-241 eta 480 ordu artean: prezioa orduko: 11,00 edo 25,00 euro, dagokionaren arabera.

-481 ordutik aurrera: prezioa orduko: 10,00 edo 18,00 euro, dagokionaren arabera.

3. Urtarril, otsail, martxo, apiril, maiatz eta ekain bitarteko orduen batura:

-24 eta 360 ordu artean: prezioa orduko: 12,00 edo 32,00 euro, dagokionaren arabera.

-361 eta 720 ordu artean: prezioa orduko: 11,00 edo 25,00 euro, dagokionaren arabera.

-721 ordutik aurrera: prezioa orduko: 10,00 edo 18,00 euro, dagokionaren arabera.

-481 ordutik aurrera: prezioa orduko: 10,00 edo 18,00 euro, dagokionaren arabera.

4. Ikastaroa maiatzean amaituko balitz, urtarrilean, otsailean, martxoan, apirilean eta maiatzean, honako hauek aplikatuko lirateke:

-20 eta 300 ordu artean: prezioa orduko: 12,00 edo 32,00 euro, dagokionaren arabera.

-301 eta 600 ordu artean: prezioa orduko: 11,00 edo 25,00 euro, dagokionaren arabera.

-601 orduetik aurrera: prezioa orduko: 10,00 edo 18,00 euro, dagokionaren arabera.

ENTSEGU GELAK ETA AMBIGUKO ATARIA LARUNBATAK, IGANDEAK, HITZARTUTAKO ITXIERA- EGUNAK, UZTAILA, ABUZTUA ETA JAIEGUNAK	ERROLDATUTAKO PERTSONAK / ENPRESAK ETA AULAESCENA FORMATUA (euroak)	ERROLDATU GABEKO PERTSONAK / ENPRESAK (euroak)	BARAÑAINGO IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTE ERREGISTRATUAK (euroak)	ERAKUNDE AUTONOMOAK (euroak)
Entsegu gela baten gutxieneko kostua (4 ordu)	193,00	273,00	145,00	145,00
Orduko kostua lehen 4 orduetatik aurrera	39,00	59,00	27,00	27,00
Bi entsegu gelaren gutxieneko kostua (4 ordu)	233,00	345,00	145,00	145,00
Orduko kostua lehen 4 orduetatik aurrera	49,00	77,00	27,00	27,00
Hiru entsegu gelaren gutxieneko kostua (4 ordu)	265,00	361,00	145,00	145,00

Orduko kostua lehen 4 orduetatik aurrera	57,00	81,00	27,00	27,00
Ambiguko atariaren gutxieneko kostua (4 ordu)	249,00	349,00	145,00	145,00
Orduko kostua lehen 4 orduetatik aurrera	53,00	78,00	27,00	27,00

Auditoriumaren, agertokiaren, entsegu gelen edo ambiguko atariaren erreserba, erroldatutako edo erroldatu gabeko pertsona eta enpresentzat, behin betiko finkatuko da, eskatutako premien arabera ezarritako guztizkoaren %25eko aurrerakin baten bidez (itzuliko ez dena), Aulaescena formatuarena izan ezik, zeinak bere erregulazio propioa baitu, Ordenantza honetan azaltzen denaren arabera.

Barañaingo erakunde autonomo eta kultura- eta gizarte-elkarteentzako auditoriuma, agertokia, entsegu gelak edo Ambiguko ataria behin betiko gordeko dira Udalarari erregistro bidez egindako eskaera baten bidez. Entsegu gelen edo Ambiguko atariaren kasuan, doan emanen dira, betiere jardueran parte hartzen duten erabiltzaileei kuotarik edo kosturik ezartzen ez bazaie. Prezio edo kuota bat kobratuz gero, prezio publikoa aplikatuko zaie "erroldatutako pertsonen / enpresei".

MATERIALAK ETA APARTEKO BESTE ZERBITZU BATZUK	ERROLDATUTAKO PERTSONAK / ENPRESAK ETA AULAESCENA FORMATUA (euroak)	ERROLDATU GABEKO PERTSONAK / ENPRESAK (euroak)	BARAÑAINGO IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTE ERREGISTRATUAK (euroak)	ERAKUNDE AUTONOMOAK (euroak)
Aretoko burutza-zerbitzuaren edo atezaintzako aparteko ordua	28,00	29,00	27,00	27,00
Aretozaintzako langileen zerbitzuko aparteko	28,00	29,00	27,00	27,00

ordua				
Txartel-zerbitzuko aparteko ordua	28,00	29,00	27,00	27,00
Agertokiko laguntzaile-zerbitzuko aparteko ordua	28,00	29,00	27,00	27,00
Agertokiko zerbitzu teknikoaren aparteko ordua	37,00	38,00	36,00	36,00
Garbiketa-zerbitzuko aparteko ordua	27,00	28,00	0,00	0,00
Ikuskizunekin zerikusirik ez duten ekitaldietarako, errekaratu bat aplikatzen da, 2021eko abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-Dekretuaren arabera (32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Lanerreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lanmerkatua eraldatzeko presako neurriei buruzkoa)	37,78	37,78	37,78	37,78
Auditoriumeko pianoa erabiltzea ikuskizun edo entseguetarako (eguneko)	103,00	205,00	0,00	0,00
Pianoa afinatzea	216,00	237,00	206,00	206,00
Deskargatzea-muntatzea / desmuntatzea-kargatzea eta oholtzak desmuntatzea-muntatzea korurako edo beste	448,00	490,00	426,00	426,00

ekitaldi batzuetarako				
Fosoaren gaineko 1. eta 2. besaulki-ilarak desmuntatzea/muntatzea	590,00	646,00	562,00	562,00
Fosoa desmuntatzea/muntatzea	1179,00	1292,00	1123,00	1123,00
Dantzarako lurzorua ezartzea	224,00	245,00	213,00	213,00
Dantzarako lurzorua jasotzea	224,00	245,00	213,00	213,00
Sotoko biltegia, m ² /hilabete	4,00	8,00	0,00	0,00

Sektoreko edozein enpresari norbere kontura erosten ahalko zaio Auditoriumaren fitxa teknikoan ez dagoen hornidura teknikoa. Ekitaldiaren antolakuntzak eskatzen badu, Auditoriumetik erakundeen kontaktuak ematen ahalko zaizkio bere jarduera garatzeko. Eskatzen diren eta kontuan hartu ez diren beste zerbitzu batzuei buruzko informazioa emanen da, baita horiek gauzatzeko moduari buruzkoa ere.

ERANSKINA.-ERABILTZAILE GUZTIENTZAT

1.-Prezio publikoaren indarraldia.

Prezio publiko hau indarrean jarriko da testu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean jarraituko du aldatu edo indargabetu arte.

2.-Aurrekontuaren baliozkotasuna.

Aurrekontuak 30 egun naturaleko balioa izanen du, antolatzaileari edo erabiltzaileari posta elektronikoz bidaltzen zaizkion egunetik zenbatzen hasita. Instalazioetarako sarbidea arautzen duen araudi ez-fiskala ere bidaliko da.

3.-Aldez aurreko data.

Antolatzaileak edo erabiltzaileak data jakin bat eskatzen du.

4.-Erreserba.

Aldez aurreko data bat eraginkor egiteko eta behin betiko erreserba gisa finkatzeko, antolatzaileak edo erabiltzaileak espazioaren eskaera bat egin beharko

du egoitza elektronikoaren bidez edo aurrez aurre Udalaren Herritarrentzako Arreta Bulegoan (HAB).

A) Aurrekontuan sartutako prezio publikoaren %25 ordainduko du aurrerakin gisa. Erreserba baliogabetzen bada, ez da aurrerakin hori itzuliko.

B) Aurrekontua onartzeak eta %25eko aurrerakina ordaintzeak erreserba berretsiko du.

C) Auditoriuma (areto nagusia eta agertokia) erabiltzeko aurrekonturik egin ezin bada, antolatzaileak edo erabiltzaileak honako aurrerakin hau ordainduko du:

-1.500 euro, 1 eta 5 egun bitarteko alokairuetarako.

-2.500 euro, 6 eta 10 egun bitarteko alokairuetarako.

-3.500 euro, 11 eta 15 egun bitarteko alokairuetarako.

-15 egun baino gehiago: 3.500 euro gehi 1.000 euroko gehikuntza bost eguneko multzo bakoitzeko.

D) Nafarroako udalek, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako administrazio publikoen mendeko entitateek sinatutako konpromiso baten bidez eginen dute erreserba. Erreserba deuseztatzen bada, adierazitako prezio publikoa ordaindu beharko du erakunde antolatzaileak. Prezio publiko hori honako apartatu honetan arautzen da: "Erabiltzaileak bere aldetik deuseztatzea emanaldietarako ekitaldiak edo datak".

5.-Egile-eskubideen ordainketa.

Antolatzaileari edo erabiltzaileari dagokio.

6.-Txarteldegiko diru-bilketa itzultzeko betekizunak.

Sortuz gero, egile-eskubideak ordaindu beharko dira nahitaez, eta prezio publikoaren zenbateko osoa ordaindu beharko da.

7.-Deuseztapenak eta geroratzeak.

A) Erakundeak bere kabuz deuseztatzen badu data: ez da itzuliko prezio publikoaren aurrerakina, eta sarrerak itzultzeko gastuak bere kontura izanen dira. Adierazitako prezio publikoa ere ordaindu beharko du.

B) Data Udalak bere kabuz deuseztatzen badu, jasotako prezio publikoaren aurrerakina itzuliko da.

C) Deuseztatzen bada ezinbesteko arrazoiengatik –pandemiak, taldekideen gaixotasuna (frogagarria bada), uholdeak, lurrikarak eta abar– ez da fidantza itzuliko, baina eskubidea izanen da beste data bat ezartzeko, bi aldeek adostua (antolatzailea eta Udala).

C apartatuaren kasuan, sarrerak itzultzeko gastuak, 380 eurokoak, zati berdinetan ordainduko dituzte Udalak eta antolatzaileak edo erabiltzaileak, eta 190 euro ordainduko dizkio Udalari.

D) Beste data bat ezartzea:

-Data behin bakarrik geroratzen ahalko da, behar bezala arrazoituta. Erakundeak posta elektronikoz bidali beharko dizkio Udalari (Auditoriuma) geroratzea arrazoituko duten egiaztagiria. Halaber, dokumentu idatzi bat erantsi beharko da, logotipoarekin eta erakundearen zigiluarekin, eta digitalki sinatuta, geroratzearen arrazoiak argudiatuz.

-Data berria alderdien artean adostuko da, eta hasierako dataren ondorengo 6 hilabeteen barruan egon beharko da.

-Ekitaldia egiten bada prezio publiko berri bat onartu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, prezioari dagokion igoera aplikatuko zaio.

-Jarduera atzeratutako data berriak gauzatzen ez bada, arrazoi justifikatuarekin edo ez, alde bakarreko deuseztapentzat hartuko da eta 7.A puntua aplikatuko da.

8.-Jarduerarekin jarraitzea etenaldirik gabe.

Jarduera etetea eragiten ez duten akats teknikoak gertatzen badira, erakundeak ezin izanen du inolako kalte-ordainik eskatu jarduera gauzatzen bada, nahiz eta jarduera hasieran aurreikusitakoak baino baliabide tekniko gutxiagorekin egin.

9.-Sarrerak saltzeko sistema.

Udalaren saltzeko sistema (Auditoriuma) erabiltzen ez bada, Auditoriumaren erabilera osorik ordainduko da, gehi 1.500 euroko fidantza (atxikipena) egile-eskubideetarako. Horiek itzuli egingen dira sortutako eskubideak ordaindu eta ordainketaren egiaztagiria bidali ondoren.

10.-Erantzukizun zibileko aseguru, auditoriumean egiten diren jarduera guztietarako.

Erantzukizun zibileko aseguru bat eduki beharko da, eta haren kopia edo egiaztagiria posta elektronikoz eman beharko zaio Udaleko (Auditoriuma) arduradun teknikoari.

AUDITORIUMA ETA AGERTOKIA ERABILTZEKO ERABILTZAILEAK FINKATZEA

11.-Auditoriuma 8 orduz erabiltzeko erabiltzaileak finkatzea (besaulki-patioa eta agertokia).

Erabilera bat urtean: ez da deskonturik aplikatuko.

Bi erabilera urte naturalean: 50 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Hiru erabilera urte naturalean: 75 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Lau erabilera urte naturalean: 98 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Bost erabilera urte naturalean: 123 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Sei erabilera urte naturalean: 148 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Zazpi erabilera urte naturalean: 173 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Zortzi erabilera urte naturalean: 197 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Bederatzi erabilera urte naturalean: 222 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Hamar erabilera edo gehiago urte naturalean: 247 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

12.-Agertokia 4 orduz erabiltzeko erabiltzaileak finkatzea.

Urtean behin bakarrik erabilia ez da deskonturik aplikatuko.

Bi erabilera urte naturalean: 12 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Hiru erabilera urte naturalean: 18 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Lau erabilera urte naturalean: 24 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Bost erabilera urte naturalean: 30 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Sei erabilera urte naturalean: 36 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Zazpi erabilera urte naturalean: 42 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Zortzi erabilera urte naturalean: 48 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Bederatzi erabilera urte naturalean: 54 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Hamar erabilera edo gehiago urte naturalean: 60 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

13.-Agertokia 8 orduz erabiltzeko erabiltzaileak finkatzea.

Urtean behin bakarrik erabilia ez da deskonturik aplikatuko.

Bi erabilera urte naturalean: 32 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Hiru erabilera urte naturalean: 48 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Lau erabilera urte naturalean: 64 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Bost erabilera urte naturalean: 80 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Sei erabilera urte naturalean: 96 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Zazpi erabilera urte naturalean: 112 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Zortzi erabilera urte naturalean: 128 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Bederatzi erabilera urte naturalean: 144 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

Hamar erabilera edo gehiago urte naturalean: 160 euroko deskontua erabilera bakoitzeko.

14.-Aulaescena formaturako baldintzak eta prezio publikoaren ordainketa.

Alkatetzak, Kultura/Auditorium Arloko Batzordearen Lehendakaritzak, edo hark eskuordetutako norbaitek, baloratuko du jarduera Aulaescena formatutzat hartzea, alderdi interesdunaren proposamena Udalari (Auditoriumeko arlo teknikoa) bidali ondoren.

Proposamenak gutxienez astean edo hamabostean behingo jarduera jarraitu eta egonkor bat jaso behar du urte/ikasturtean zehar. Formatu hori eskuratzen ahalko dute erroldatutako eta erroldatu gabeko hainbat pertsona, entitate, elkarte, enpresa eta erakundek.

Jarduera Aulaescena formatuan onartu ondoren, entsegu gelak hileko edo noizbehinkako jardueretarako gordetzen ahalko dituzte, gainerako jarduera nagusi(ar)en prezio publiko berean.

Aulaescena formatuaren prezio publikoa ordainduko da hilabete bakoitzeko lehen 5 egunetan, Alkatetzak horretarako emanen duen ebazpenean ezarritako zenbatekoaren arabera, Barañaingo Udaleko Herritarren Arretarako Bulegoan (HAB) edo Udalaren honako banku-kontu honetan (ES84 2100 5181 1422 0006 4922) (*) diru-sarrera eginez.

Ikasturteko lehen lauhilekoko jarduera amaitzean, iraila eta abendua bitartean, dagokion erregularizazioa egingen da, egiazko erabilera-orduen arabera, indarrean dagoen ordenantza aplikatuta.

(*) Ikasturteko bigarren sei hilekoa amaitzean, urtarriletik maiatzera bitartean, edo urtarriletik ekainera bitartean, dagokion erregularizazioa egingen da, egiazko erabilera-orduen arabera, onetsitako ordenantza berria aplikatuz.